

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Behin betiko onestea 19. sektorearen (Aretxabaleta-Gardelegi) plan partzialaren hamargarren aldakuntza

Indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 19. sektorearen Plan Partzialaren hamargarren aldaketa puntualari dagokionez, Udal Osoko Bilkurak 2016ko urtarrilaren 29a ondoko erabakia hartu duela jakinarazten dizut:

1. (Aretxabaleta-Gardelegi) 19. sektoreko hitzarmen-batzarrak sustatutako eta L. L. de A. O. y D. R. M. de C. G. arkitektoek idatzitako 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamargarren aldaketa behin betiko onartzea.

2. Arabako Foru Aldundiari Planaren kopia bat igortzea (gordailatzeko), eta 19. sektoreko (Aretxabaleta-Gardelegi) Plan Partzialaren hamargarren aldaketari buruzko erabaki hau ALHAO aldizkarian eta tirada handieneko egunkarietako batean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 89. artikuluan eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

3. (Aretxabaleta-Gardelegi) 19. sektoreko hitzarmen-batzarrari eta Aretxabaleta eta Gardelegiko administrazio batzarrei erabakiaren berri ematea

4. Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 1an

Alkate lehendakaria

GORKA URTARA AGIRRE